

## **KONTUZ, MUNSTROA MUGITZEN DA!**

Venezuelaren aurkako egungo eraso inperialistak helburu argia du, betiko bera: Iraultza Bolibartarrarekin amaitzea, zilegizko gobernua kanporatzea eta txotxongilo bat ezartzea herrialdea kontrolatu ahal izateko. Ez dute lortu, ezagunak ditugun estrategiak ongi aplikatu dituzten arren:

- Presidente mamu baten auto-izendatzea.
- Estatu Batuen eta bere jarraitzaile diren estatuen berehalako aitortza.
- Nazio Batuen erabilera eraso legitimatzeke.
- Mundu mailako kanpaina diplomatiko eta mediatikoa iruzurra legitimatzeke.
- Erreserba finantziario eta energetikoen blokeatzea, eta oinarritzko produktuena.
- Zigor zuzen eta induzituen handitzea.
- Eragindako gabeziak leuntzeko laguntza humanitarioa eskaintzea. Laguntza pozoitu honen entregatzea aitzakia izango litzateke inbasio armatu bat egiteko.
- Presidente mamua atxilotzeko probokazioak.
- Sabotai kanpaina herritarrak elikagai, energia, garraio eta, batez ere, urik gabe uzteko.
- Eragindako prekaritatea erabiltzea Gobernuari zilegitasuna kendu eta lapurrari emateko.

Inbasoreek behin eta berriz egin dute porrot, eta behin eta berriz irabazi du herriak, indarra eta kemena erakutsiz. Hala ere, inperialismoa ez dago Venezuelaren burujabetza errespetatzeko prest. Ematen du gerra estrategia berriekin datorrela bueltan, programatuta dituen mugimenduek aditzera ematen dutenaren arabera.

- Mike Pompeo Estatuko idazkariak Txile, Peru eta Kolonbian zehar bira bat egingo du apirilaren 11tik 15era. Apirilaren 12an Txilen bertako presidentek eta kantzilerrak egingo diote harrera. 13an Asuncionen Paraguayko kantziler eta presindentearekin egongo da. Egun horretan bertan Limara joango da Peruko presidente eta kantzilerarekin egoteko. Informazio ofizialen arabera, “haiekin Venezuelaren gaiak mintzatuko da” eta “Nicolás Maduroren Gobernuaren aurkako agendari bultzada emango dio”, “Venezuelan demokrazia ezartzearen aldeko laguntza batzeko”. 14an Cúcutan egongo da “mugako erronkak” aztertzen.
- Apirilaren 15ean Txilen egongo da “Grupo de Lima” deiturikoarekin “Venezuelaren gaiak mintzatzeko”.
- Elliott Abramsek, Venezuelaren aurkako kanpainaren koordinatzaileak, Espainia eta Portugal bisitatuko ditu.
- Estatu Batuek hirugarren aldiz Segurtasun Kontseilua deitu dute Venezuelari buruz hitz egiteko. Bertako Gobernua “krimenaren antolakunde transnazional” izendatzea nahi dute eta erakunde herrikoiak “talde terrorista” gisara. Etorkizuneko erasoentzako oinarri berria.